

DROGETEN

ITTURRI

Ermuko eta Mallabiko aldirakaria
2024ko APIRILA · 332 zenbakia

CK CONSTRUCCIONES
9 21 69 - 605 770 718
kconstrucciones.com

Vineria
Restaurante

**Hodei Rivas,
gimnasia
maskulinoan
bidea eginez**



**Ikasketak: Erdi mailako
Mekanizazioa eta goi mailako
Programazioaren Produkzioko
Fabrikazio Mekanikoa.**

Enpresa duala: Aibe.

Lanbide Heziketa



Nor da Mohammed?

Mohammed Baadoudi Edir naiz, 21 urte ditut eta Ermuan bizi naiz. DBH ikasi ondoren, IMHra joan nintzen erdi mailako Mekanizazioa egitera. Orain Programazioaren Produkzioko Fabrikazio Mekanikoko goi mailako zikloa bukatu dut, eta Aibe enpresan nago praktikak egiten.

Zergatik aukeratu zenuen Mekanizazioa ikastea?

Mekanizazio Gradua aukeratu nuen atentzioa eman zidalako. Oso mundu irekia da, gauza asko ikasten dira eta inoiz ez dakizu non amaitu dezakezun; oso interesgarria da.

Zergatik aukeratu zenuen IMHn ikastea?

Nire ustez, IMHk ate asko irekitzen ditu, eta lan mundurako oso ondo irakasteko eta prestatzeko gaitasuna du, bai ikaskuntzarako erabiltzen duten metodologiagatik, bai IMHn dauden makina eta tresnen aldetik ere.

Zein da zure iritzia orain arte IMH-N eta dualean ikasi eta bizi izan duzun esperientziari buruz?

Gehien gustatu zaidana NXn programatzen jakitea izan da, oso erabilgarria iruditzen zaidalako eta gaur egun enpresa askok horrelako programak erabiltzen dituztelako ekoizpenerako.

Praktiketarako, praktikak atzerrian egiteko Erasmus programarako eman nuen izena, baina hiru beka bakarrik zeudenez, azkenean hemengo enpresetan egin ditut praktikak.

Zer asmo duzu datorren urterako?

Nire asmoa datorren urtean mekanizazio munduan lanean hastea da; orain praktiketan nago eta enpresak kontratatzen banau, geratu egingo naiz.

Zer esango zenioke zurea moduko zikloak ikasteko zalantzan dagoen pertsona bati?

IMHren onena eskaintzen dituen prestakuntza eta irteerak direla esango nioke, eta norbaitek zikloren bati buruzko zalantzarik balu, ikastetxera joateko esango nioke galdetzerá, oso ondo informatuko dutelako.

**Informazio
Saioak**

Maiatzak 11 · 11:00

Maiatzak 15 · 17:00



Gaia: Erronda-kantua

Andres katua negarrez

(Entzuteko: www.alboka.es)

Andres
katua negarrez,
ama
iturrixan,
kaka
ipurdixan.



**Euskal
Birusa
Elkartea**

ARGITARATZAILEA:

Euskal Birusa
Elkarte Kulturala.

HELBIDEA:

Erdikokale zeharbidea 2, 1.
247 posta-kutxa
943 17 93 50 / 688 63 28 76
drogeten@gmail.com
www.drogeteniturri.eus

ERREDAKZIO TALDEA:

Estibalitz González,
Nahia Ruiz Albizuri
eta Dorleta Vidal.

KOORDINAZIOA

ETA MAKETAZIOA:
Dorleta Vidal.

AZALEKO ARGAZKIA:

Olazarmendi Kluba.

LAGUNTZAILEAK:

Emilio Carral, Antonio Hernández
'Cuco', Ermuko Haurreskola, Silvia
Ganuza, Patxi López, Valentin
Mugarza, Ainara Riveras eta Libe
Solozabal.

ARGAZKIAK:

Ermuko Udala, Estibalitz González,
Valentin Mugarza, Ermuko
Haurreskola, Masami Murakami,
Eva Rivera, Nahia Ruiz Albizuri,
Olazarmendi Kluba, Iratxe
Uribelarrea, Jon Peli Uriguen
eta Dorleta Vidal.

PUBLIZITATEA:

943 17 93 50 / 688 63 28 76
drogeten@gmail.com

INPRIMATEGIA:

Gertu Koop. (Oñati).

BANAKETA:

Maren Aguirre, Manex Prieto
eta Piedi Eizagirre.

TIRADA:

2.425 ale.

ISSN:

1133-973X.

LEGE GORDAILUA:

SS-213/1994.

*Drogeteniturrik ez du bere gain
hartzten aldizkarian adierazitako
iritzien erantzukizunik.*

Ondorengo erakundeek diruz lagundutako aldizkaria:



ERMUKO UDALA



MALLABIKO UDALA



Ainhoa Ganuza · Tenerife

“Azken urtean, turismoaren aurkako eta lurraren aldeko mugimenduak goraka egin du, baita ere mugimendu antikolonialistak eta nazionalistak”

Ainhoa Ganuza, 29 urteko ermuarra, orain dela ia bi urte joan zen Tenerifera klaseak ematera. Gurera etorriko da bueltan apirilaren amaieran.

Testua NAHIA RUIZ ALBIZURI

Nora joan zinen bizitzera?

Aurretik, Erasmusean izan ezik, Ermuan bizi izan naiz beti. Nonbaitera joan nahi nuen, ez oso gertu baina ez oso urruti ere. Hasieran, Andaluziara joatea pentsatu nuen, baina irakasle moduan Tenerifén aukera gehiago nituela konturatzean hara joan nintzen.

Nola imajinatzen zenuen hura?

Oporretan egonda nengoen, eta jendea oso alaia eta irekia zela pentsatzen nuen, baita beste logika batzuetan mugitzen zirela ere, eta horrek erakarri ninduen.


Nolako da bertako kultura?

Kanarietako kulturaren, guantxeen (Tenerifén) eta Latinoamerikaren arteko nahasketa bat sumatzen da, historian zehar eman diren bi norabidetako migrazioak

direla-eta. Badira oso tradizio bereziak ezagutzen eta aintzat hartzen ez direnak: erromeriak, dantzak, musika, jantzi tipikoak, buztzingintza tradizionala, borroka kanariarra, saskigintza... turismoak ez du bilatzen hau ezagutzea ezta baloratzea ere, eta horrek zailtzen du irlako kultura mantentzea.

Urte honetan bakarrik bizi izan zara edo etxea partekatu duzu?

Hona heldu nintzenean asko kostatu zitzaidan pisua alokatzea. Zuria izan arren, dirua aurreztua izan arren eta euskalduna izan arren (orokorrean fidagarriak garelako ematen du) oso zaila izan zen. Etxebizitza problematika izugarria dago uhartean. Mobilizazioak egiten ari diren taldeek aldarrikatzen duten bezala, az-





ken urteetan biztanleriak gora egin du Europatik hona bizitzera datozenek eraginda (penintsularrak barne) eta ia urtero turisten errekorra hausten da: 2023an 14 milioi turista etorri ziren Kanarietara. Etxebizitza turistikoek, Europako herrialdeetako eta penintsulako soldatak irabazten dituzten nomada digitalek, hara bizitzera joan garenok... alokairuen prezioak igotzea eragiten dugu, eta hemengoentzat oso zaila da etxebizitza bat lortzea (edo mantentzea). Hemengo lagunenez egun eta lagun asko kanpora joan behar izan dira etorkizun hobe baten bila. Batez besteko soldata batekin oso zaila da etxebizitza bat alokatzea; ez da bidezkoa.

Beraz, turismoaren kontrako mugimendua dago? Zer pentsatzen du jendeak?

Azken urte honetan, turismoaren aurkako eta lur-raren aldeko mugimenduak goraka egin du, baita mugimendu anticolonialistak eta nazionalistak ere. Ekintza-zuzenez baliatuta, bi makro eraikuntza-lan geldiarazi dituzte aurten Tenerifen, eta turismoaren kontrako manifestazioak gero eta jendetsuagoak dira. Erantzun hauek idazten nagoen bitartean, sei pertsona gose-greban daude turismo eredia aldatzeko helburuarekin, manifestazio baterako deialdia egin da uharte guztietan aldi berean, eta atzerriko komunitate kanariarra mobilizatu egin da Madrilen, Bartzelonan, Granadan, Malagan, Londresen, Berlinen eta Amsterdamen manifestazioak deitzeko. Argi dute: Turismoak miseria dakar: soldata baxuak, lan karga handia (hotelen logelak garbitzen dituzten emakumeen 70%k medikazioa hartzen dute lan kargari aurre egin ahal izateko, orokorrean emakume helduak dira), ur isuri ilegalak, naturaren suntsipena, biztanle-gehiegikeria,



gentrifikazioa, autobian atasko pila bat...

Zein da zure iritzia gai honen inguruan?

Asko pentsatu dut euskaldunon erantzukizunaren inguruan. Kanarietan (eta beste lurralde askotan ere) turismoa kolonialismo mota berri bat da. Uste dut euskaldunok orokorrean ez dugula pentsatzen gure ekintzek nola eragiten duten beste lurralde batzuetan, eta ez ditugula gure pribilegioak ikusi nahi. Hala ere, hemen sinpatia handia sumatu dut euskalduna izateagatik.

Gustura egon zara?

Bai, jendea oso jatorra eta maitekorra da, eta lurralde hau oso berezia da, gauza asko egiten dira kalean, eta komunitate sentimendu handia dago. Hala ere, soldata duin bat jasotzea zaila da eta lan-baldintzak txarragoak dira. Aldi berean, gaizki sentitu naiz hona etortzean, arazoaren zati bezala ikusten dudalako nire burua. Askotan pentsatzen dugu uharteak paradisia direla, eta hori oso pentsamolde arriskutsua da. Lurralde bat paradisuat hartzen badugu, han bizi den jendeaz ahazten gara eta lurralde hori esanahiez husten dugu. Pentsamendu-logika hau koloniala da ere, eta landu beharra daukagu. Nik ere horrela pentsatzen nuen hona etorri nintzenean, eta Ermuan ere askotan esan didate zorionekoa nintzela paradisu honetan bizitzeagatik!

“Saiatzen naiz etxean ez praktikatzen: zarata handia egiten dut-eta!”

Eva Rivera · Flamenko-dantzaria



Hamahiru urterekin gerturatu zen flamenkoaren mundura, eta ordutik ez du burutik (eta hanketatik) kendu. Eva Rivera (Ermua, 1976) hamabost urterekin hasi zen sevillanako klaseak ematen eta gaur egun, horrez gain, flamenkoa, Extremadurako jotak, kriskitinak eta Fit Gipsy Dance modalitatea (fitnessa eta flamenkoa nahasten dituen diziplina) irakasten ditu Eibarren eta Ermuan.

Testua **DORLETA VIDAL**

Zer dela-eta hasi zinen dantzaren munduan?

Hamahiru urte nituenean, nire gurasoen herrian pasatu genuen uda, Extremaduran, eta sevillana saioa ikusi genuen: liluratuta geratu nintzen! Dantzak soinekoak... Hala, udatik bueltan, Eibarko eskola batean hasi nintzen ikasten. Hamabost urterekin ni hasi nintzen beste batzuei eskolak ematen Ermuan, eta ikasle asko nituen.

Flamenkotik bizi izan zara inoiz?

Ez, klaseak emateko zeregin hori beste lan batzuekin uztartu izan dut beti. Duela urte batzuk dantza eskola bat sortzekotan ibili nintzen, baina oso zaila da.

Gaur egun, zertan ematen duzu denbora?

Nire lanaz gain, sevillanak eta flamenkoa erakusten dut eskola ezberdinetan. Gainera, jotako klaseak ematen ditut Extremadurako Zentroan. Onartu behar dut hasieran jotak ez zitzaizkidala asko gustatzen, gurasoen-gatik hasi nintzen, baina azkenean gustu hartu nien. Horrez gain, Fit Gipsy Flamenkoko klaseak ematen ditut herriko gimnasio batean. Duela gutxi deskubritu nuen diziplina hau eta asko gustatu zitzaidan, beraz, Madrilera joan nintzen formatzera. Aerobik estiloko klasea da, baina musika flamenkoarekin, eta denetik egiten dugu: beroketa, kardio ariketak, tonifikazioa, luzaketak... oso dibertigarria da.

Eibarren ere bazabiltza, ezta?

Bai, 20 urte inguru daramatzat bertan bizitzen, eta azken 6-7 urteotan flamenkoa eta sevillanak ematen ditut dantza eskola batean. Aurtan, gainera, kriskitinak jotzen ikasteko klaseak ematen hasi naiz, eta jende dezentek eman du izena: gehienek sevillanak dantzatzeko dakite, eta kriskitinak erantsi nahi dizkiete dantzei.

Zein da zure ikasleen profila?

Emakume helduak, gehien bat. Gazteenek 30 urte inguru izango dituzte eta erretiratutako lagunak ere badaude, baina 50 urte ingurukoak dira gehienak. Adin horrekin hasten dira, aurretik ezer jakin barik, zertxobait ikasteko asmoarekin, baina gero animatu egiten dira, eta eszenatokira igotzen dira herrian egiten diren ekitaldi ezberdinetan. Fit Gipsyan ere antzera. Energia handia dute!

Sevillanak, flamenkoa, jotak, fitnessa... Esparru zabal horretan, non mugitzen zara zu gusturago?

Sevillanetan, horretan hasi nintzen-eta. Flamenkoari dagokionez, hainbat ikastaro egin ditut Andaluzian, baina oinarrizko klaseak ematen ditut. Izan ere, flamenkoak adar asko ditu: buleriak, tangoak, alegriak... eta horietako bakoitza ezberdin dantzatzeko da. Musika eta konpasak, arropa eta aurpegiaren espresioa bera ere ezberdinak dira.





Norekin formatu zara?

Dantzari eta leku askotan ikasi dut: Donostian, Kar-mele Ceperorekin; Bilbon; Sevillan, izen handia duen Juana Amayarekin; Ermuan, Lidia de Lorenzorekin... Lidiarekin hainbat urte eman nituen, eta garai hartan berak Eibarko eskola batean ere ematen zituen klaseak. Berak utzi zuenean, nik ordezkatu nuen eskola horretan. Gainera, onlineko ordainpeko ikastaroak egin izan ditut ere.

Flamenkoa dantzatzea garestia da?

Bai, flamenkoa oso garestia da orokorrean: soinekoak, mantoiak, klaseak berak... Kontuan izan lehen aipatu ditugun *palo* horietako bakoitzerako soineko bat behar dela, eta urtetik urtera modak aldatu egin dira (estanpatuak, gerri altuagoa, baxuagoa, bolante gehiago, gutxiago...). Zorionez, gaur egun denetik dago, eta soineko merketxoak eros daitezke, baina erdi-mailako soineko batek 400 edo 500 euro inguru balio dezake;

"Flamenkoa oso garestia da orokorrean: soinekoak, mantoiak, klaseak berak..."

entseatzeko gonak batek, 80 euro inguru; zapatek, 100 eurotik gora!

Zer diozu zapatez...

Mila formatako zapatak daude: lokarriekin, hebblekin, takoi ezberdinekin... baina dantza guztietarako berdinak erabili daitezke. Kontuan izan behar den gauza bakarra da flamenkoko zapatek iltzeak daramatzatela zapateatu ahal izateko, eta sevillanakoek ez.

Garrantzitsua da zapata egokia aukeratzea?

Bai, batzuk 30-40 euroko zapatak erosten dituzte, baina bi hilabetetan oinak birrinduta dituzte.

Zein pisu dauka elementu bakoitzak?

Nire ustez zapata onak aukeratzea oso garrantzitsua da, baina bistara, soinekoa da deigarriagoa.

Zer nolako garrantzia du aurpegiaren espresioak?

Garrantzitsua da, *paloaren* arabera dantza alai edo sakona delako, eta aurpegiaren keinua bat etorri behar da horrekin.

Nor miresten duzu?

Beatriz Morales, zalantza barik! Aipatuko nituzke ere Joaquín Cortés, aparta delako, eta ez hain ezagunak diren Lucía Benavides eta Claudia La Debla. Nire irakaslea izan zen Granadako neska bat ere aipatuko nuke, bereziki ona iruditu zitzaidan.

Euskal Herrian maila altua dago flamenkoan?

Badaude baten batzuk oso maila altua dutenak: 'La Pulga' gasteiztarra, esate baterako. Sasoi batean bere klaseetara joan nintzen.



Arg: Ermuko Udala.

CAPRI
PIZZERIA
943 03 33 15

arral97.com

Luis Cañas	Cair
Amaren	Casar de Burbia
Cair	Bodegas Valdemar
Ehun	García de Olano
Txakoli Astobiza	Manzanos Wines
Pazo Señorans	Pemord Ricard Wines
Cava Oriol Rossell	Faustino García Martínez.

arral@arral97.com | Pol.Goitondo-Goikoa, Parc.7 - Pab.1 | 48269 Mallabia (Bizkaia)

nitida

T.943176075

RIF

ITURGINTZA
KONPONKETAK

Marques de Valdespina 16
ERMUA
605 71 10 81 / 688 71 27 10

"Taldean dantza egiten ohituta nago, baina bakarka askeago sentitzen naiz"

Inoiz pentsatu duzu Euskal Herritik kanpora irtetea, bide honetan aurrera egin ahal izateko?

Dagoeneko berandu da, agian gazteagoa nintzenean... Askotan esan diet gurasoei txikitari eskolaren batera eraman behar nindutela, ez eskolaz kanpoko ekintza bezala, baizik eta zerbait trinkoagoa, baina... Nik oso argi neukan, baina horretan lan egin ahal izateko Madrilerara edo Andaluziara joan beharko nintzateke.

Zenbat leku ezberdinetan aritu zara dantzan?

Inguruko herri askotan egon naiz, baita Iruñian, Madrilan eta Extremaduran ere. Telebistan ere pare bat bider egon naiz, ETBn eta baita TVE1ean, 1992an, María Teresa Camposek aurkezten zuen koplako saio batean. Gehienetan nire taldearekin batera mugitzen naiz.

Nahiago duzu bakarka edo taldean dantzatzea?

Ez dakit. Biak, egoera ezberdinak dira. Taldean dantza egiten ohituta nago, eta inguruan jendea izatea gustatzen zait, elkarrekin gozatzea eta irakastea. Dena den, bi urte eman ditut Eibarko Coliseoan bakarka dantza egiten, eta onartu behar dut bakarka askeago egiten dudala dantza, ni neu izan naiteke.

Nahiago duzu publikoa flamenkoan aditua izatea, edo ezagutzarik ez izatea?

Zerbait badakite, hobeto, baina berdin zait. Jakin edo ez, goza dezatela da helburua.

Zu jouten zara zuzeneko emanaldiak ikustera?

Bai, eta neskak ikustea gustatzen zait batez ere.



Zeintzuk dira egin dituzun azken ekitaldiak eta burutuko dituzun hurrengoak?

Martxoko lehen asteburuan Ermua Antzokian egin genuen dantza, Andaluziako Eguna dela-eta. Apirilean ere hainbat ekitaldi egin ditugu, eta maiatzean Letra Galegoetan, El Rocioko erromerian eta hainbat ezkontzetan egingo dugu dantza. Gainera, Jerezko Ferriara joango gara eskolako 22 lagun, hirugarren urtez jarraian. Egiten ditudan gauzak eta bidaien argazkiak Facebookeko Eva Eva kontuan ikus daitezke.

Nola ikusten duzu zure burua etorkizunean?

Daukadanarekin pozik nago eta horrela jarraitu nahiko nuke: klaseak ematen, beste batzuei erakusten eta dantza egiten.

Eskolan ordu asko ematen dituzu, baina etxean ere praktikatzen duzu?

Saiatzen naiz etxean gutxitan praktikatzen, egia esan, zarata handia egiten delako! Dantzatzekotan eskuoihal bat jartzen dut lurrian, edo galtzerdiak janzen ditut zapaten gainetik, baina hala ere...!





EGIN

AURREMATRIKULA!

Aukerarik onena,
etorkizuna duena!



Mendibil Abesbatza, 20 urte kantuan gozatuz

2004-2005 ikasturtean jaio zen Mallabiko Mendibil Abesbatza, Jasokunde Abesbatzan kantatzen zuten umeen gurasoen ekimenez. Maiatzaren 25ean, 20. urteurrena ospatuko dute eta horretarako kontzertu berezia prestatzen ari dira, herritar guztiei zabalik egongo dena.

Testua **DORLETA VIDAL**

Iratxe Uribelarreak 20 urte daramatza Mendibil Abesbatzan zuzendari, hau da, abesbatza sortu zenetik. Izan ere, bere ama izan zen haren sustatzailerik handienetakoa: "Gure seme-alabek Jasokunde Abesbatzan kantatzen zuten —gogoratu dute egungo kideek—, eta astebururo leku batetik bestera eramaten genituen kantatzeko. Mari Carmen Solozabal, Iratxeren ama, oso saltsera zen, eta gurasook koro bat sortzea proposatu zuen. Eta hala egin genuen". Ordutik Iratxe izan da Mendibileko "motorra", onartu dute taldekideek.

Hasieratik, koro mistoa osatu zuten, lau ahotsekin: emakume soprano eta kontraltoak, eta gizonen tenoreak eta baxuak, baina emakumeak beti izan dira ugariagoak. "Ez genekien solfeorik baina, umeen kantuen eraginez, grina piztu zitzaigun, eta abesten hasi ginen. Gure helburua bakoitzak bere ahotsari ondo zetorkiona abestea zen, eta ondo pasatzea", esan dute.

Hogei bat andrazko eta gizonen hasi ziren horretan, eta kopuru horren bueltan aritu izan dira beti, gaur egun ere, kide batzuk joan eta berriak etorri direlako.

Eta taldetxo horrekin, urteak joan urteak etorri, solfeoko oinarrizko kontutxoak ikasten joan dira eta talde izaera sendotzen joan da, eta gaur egun euren zeregina





ORBE
TOLDOS Y PERSIANAS

Toldoak / Ostalaritzako muntaiak / Instalakuntzak eta konponketak
Pertsianak / Segurtasun pertsianak / Pertsiana dekoratiboak
Motorizazioa / Manparak / Estoreak / Eitxo-sareak

<p>Tailerra: Zearreko Buelta 2 943 17 66 34 - 630 01 13 41 48260 Ermua (Bizkaia)</p>	<p>Erakusketa: Karabixa 1 48260 Ermua (Bizkaia) 943 17 98 60 persianasorbe@gmail.com</p>
--	--

ANTXITXIKETAN AISIALDIA

• Diputazio kalea, 8 - 10, behea.

PSIKOMOTRIZITATEA LOGOPEDIA
PSIKOTERAPIA LUDOTEKA
ERREFORTZU ESKOLARRA

 943 576 124	 10.00 - 13.30	
 747 453 607	 15.30 - 19.30	

  Antxixiketan  info@antxixiketan.com



ez da bakarrik abestea, taldean abestea baizik: "Koroak asko lantzen du talde izaera, eta ez dugu abesten nork bere kasa, baizik eta bata bestearen arrimura. Abesti berri baten aurrean, ahotsak gero eta arinago bateratzen ditugu, ikusi egiten dugu zer dagoen ondo eta zer ez, eta ekin eta ekin gauza politikak irteten zaizkigu —azaldu dute—. Txalo zaparrada jasotzen dugu beti, beraz, ez dugu txarto egingo!".

Errepertorio zabala

Hogei urteotan abesti asko landu dituzte, estilo, hizkuntza eta zailtasun maila ezberdinetakoak, eta euskal kantak ugarietak izan badira ere, ez diete uko egin erronka berriei: "Gaztelaniaz, galegoz eta katalanez

"Gaztelaniaz, galegoz, katalanez, ingelesez, frantsesez eta swahiliz abestu izan dugu"

gain, ingelesez, frantsesez edota swahiliz abestu dugu —esan dute barrez—, eta guk ez dakigu ez frantsesa, ez ingelesa ezta swahilia ere, baina ausartu izan gara". Eta abestiak aukeratzeko lan horretan zeresan handia dauka Iratxek. "Abesti bat gustatzen zaidanean, partiturak topatzen ditut, eta gero begiratzen dut ea taldearentzako egokia den eta moldagarria den. Dena den, urtero abesti pare bat aukeratzen ditut maila al-



JOSE LUIS MAS AGUIRRE

1947/02/02 - 2024/03/27

Zu gurekin eta gu zurekin, betirako
Etxekoak



tutxoa dutenak, eta ahalegin berezia eginez, aurrera ateratzen dugu", azaldu du Uribelarreak.

Eta bide honetan entseatzea ezinbestekoa da, eta ordu eta erdiko entsegu "intentsoa" egiten dute astean behin: "Batzuetan izerditan bukatzen dugu!". Horrez gain, zuzendariak etxeko lanak ipintzen dizkie taldeki-dei (entseguetan grabatutako abestiak praktikatzea), eta batzuetan agindutakoa betetzen dute eta beste batzuetan ez, onartu dute.

Ospakizun kontzertua

Urtero taldeak hainbat ekintza burutzen ditu: Santa Ageda eta Gabon batzeak, baserriz baserri egiten di-

Maiatzaren 25ean, duela hogeitau abestu zituzten lehen bi abestiak kantatuko dituzte, besteak beste

tuztenak; maiatza-ekaina inguruan beste emanaldi bat egiten dute, eta beste bana Gau Beltzan (urrian) eta Santa Zezilian (azaroan). Horrez gain, urtero trukeren bat egiten dute beste kororen batekin, eta bata bestearen herrira joaten dira abestera. Truke horien baitan, Zornotza eta Aramaio izango dira bisitatuko dituzten hurrengo herriak.

Dena den, 2024a urte berezia da Mendibilentzat eta, ohiko ekintzez gain, maiatzaren 25erako ospakizun-emanaldia prestatzen ari dira. Guztira 12 abesti kantatuko dituzte, besteak beste, duela hogeitau abestu zituzten lehen bi abestiak: *Izar ederra* eta *Maritxu nora zoaz*. "Garai hartako bideoak topatu nahian nabil —azaldu du Iratxek—. Badakit grabatuta ditudala eta polita izango litzateke taldearen bilakaera ikustea...". Gainera, herriko dantza taldeak ere parte hartuko du abesti batzuetan. Mendibil Abesbatza entzun nahi duenak egun horretako 19:00etan hurbildu beharko da Mallabiko frontoira.




FOTOKOPIAK
KOLOREZKO FOTOKOPIAK
HANDIPENAK - TXIKIPENAK
PLANOAK - AZALEZTAPENAK
FAX PUBLIKOA
INPRIMAKETAK KAMISETATAN

Komentukua, 6 behea 48260 ERMUA TEL. / FAX 943 17 42 89

T **XALAPARTA**
ABERNA

Eta asteburuetan pintxoak, afariak eta bokatak!

- Itsaskabra pudina.
- Txipirotiak.
- Piper beteak: okela edo onddoak.
- Fritoak: urdiazpikoa edo onddoak.
- Redondo saltsan.
- Sagar tarta.
- Gazta tarta.
- Tortila patata...

Erdikokale 13 (Ermua) **ENKARGUAK 943 030 299**

Egaña

ETXETRESNA ELEKTRIKOEN
 SALMENTA ETA KONPONKETA

Diputazioa 7 (Ermua) · 943 17 66 08

LEIRE RASCO
BIZARTEGIA
ILEAPAINDEGIA
943 17 17 96

@LEYTHEBARBER
 C/GOIENKALE NS
 ERMUA (BIZKAIA)

Apirilaren 26an zabaldu zen Mallabiko Zubitegi Kirol Parkea

Udalak herriko bizilagunei jakitera eman dienez, Mallabarrenako lautadan eraiki berri den Zubitegi Kirol Parkearen instalakuntzak zabalik eta erabilgarri daude apirilaren 26tik aurrera. Zubitegi errearen bazterrean kokatua, herriko ume, gazte eta helduen aisiara zuzendutako hainbat elementu ditu, besteak beste: umeentzako txintxaunak, padel pista, tirolina eta askariak egiteko gunea. Aurreikusitako gainontzeko instalazioak geroago jarriko dira. Hainbat landara, zuhaitz eta fruta-arbola ere landatu dira bertan, txiki oraindik, denborarekin hasten joango diren aurreikuspenarekin.



Emakumezkoen Frontenis txapelketa burutuko da ekainean

Ekainaren 15ean eta 16an Emakumezkoen Mallabiko Frontenis Txapelketa burutuko da. Ekainaren 15ean (larunbata) bikoteka jokatuko da, eta 16an (igandea), aldiz, banaka. Bikotekako fasea 9:00etan hasiko da frontoian, eta bertan eskualdeko jokalariek parte hartu ahal izango dute (Euskadiko federatu gabeak). 11:30ean, aldiz, kategoria absolutuak jardungo du. Igandean banakako fasea jokatuko da, 9:00etatik aurrera eskolako frontoian. Guztira 1.300 euro banatuko dira sari ezberdinetan, hala nola txapelak eta garaikurrak, eta izena eman nahi dutenek 669 02 87 18 telefonora deitu beharko dute (20 euro ordaindu beharko dira bikoteka parte hartzeko, eta 10 euro banaka jokatzeko). Mallabia FTK antolatzen du ekintza hau, Mallabiko Udalaren babesarekin.

MALLABIO LEIALA

MALLABIKO FRONTENIS TXAPELKETA
(EMAKUMEZKOENIA / FEMENINO)

BIKOTEKA - FASEAK

EKAINAR 15 DE JUNIO
MALLABIO FRONTOIAN - Frontoi de Mallabia
9:00 - ESKUALDEKOIA (Federatuak)
EUSKADIKO FEDERATU GABEAK (Federatuak ez direnak)

11:30 - ODAIA (Absolutuak)
MALLABIOIA - 200 METROA

BANAKA - INDIVIDUAL

EKAINAR 16 DE JUNIO
ESKOLAKO FRONTOIAN - Frontoi de la escuela
9:00

INSKRIZIOA: 10€

SARJAN - PIZTOS

BIKOTEKA / FASEAK	BANAKA / INDIVIDUAL
1. TXAPELAK - 600€	1. TXAPELAK - 300€
2. TROFEO - 200€	2. TROFEO - 100€
3. TROFEO - 100€	3. TROFEO - 50€
ESKUALDEKOIA (Federatuak) TROFEO - 100 EURO	

INSKRIZIOA:
469 02 87 18

A.D. MALLABIA F.T.K.

AUTO ESCURDIA
MECANICA-ELECTRICIDAD

Jon Albizu
Ainhoa M. Goitandia

Extremadura zeharbidea z/g
48260 ERMUA (Bizkaia)
Tel.: 943 174 505

Torrealdy

ZURE FINANTZA-OSASUNERAKO BAZKIDE ESTRATEGIKOIA

ZERGA, LAN ETA KONTABILITATE AHOLKULARITZA ERMUA

Plan B

Coffee Lounge Gin & Beer

DG

Horacio Decoración
TAPIZERIA - ALIZABIAE - OSAGARRIAE

VI Centenario 10 - Ermua
943 03 15 80 / 688 61 06 38
www.dghoraciodecoracion.com



Berano errekan, oinezkoen bidexkaren azpiko aldea.
Argazkilaria: Fernan Alonso.

Javi Alberdi mendizalearen omenezko ekitaldi solidarioa burutuko da ekainaren 8an

Artarra Mendi Taldeak eta Hiru Txikiak Trail ekimenak ekitaldi solidarioa burutuko dute ekainaren 8an, larunbata: I. Javi Alberdi Memorial Solidarioa (Urko 12 ordu non stop). 7:00etan hasi eta 19:00ak bitartean, nahi beste bider igo ahal izango da Urko mendira, ibilaldi bakoitzean 2 euroko gutxieneko ekarpena egin eta gero. Igoerak orduero abiatuko dira, eta taldean edo bakarka egin ahal izango dira. Antolatzaileek jakinarazi dutenez, jasotako diru guztia bideratuko da Ermuko mutiko batek pairatzen duen SLC6A1 geneari lotutako Entzefalopatia epileptikoa gaixotasunaren ikerketara. Egunean zehar, gainera, hainbat ekintza burutuko dira: 10:00etan, mugikortasun urriko hainbat lagun igoko dituzte Urkora; 10:30ean Javi Alberdiri omenaldia egingo zaio, bere omenez zuhaitz bat landatu zen lekuan; 14:00etan harrera egingo zaie mugikortasun urriko lagunei Urkotik bueltan; 18:30ean Urko puntan jarriko den postontzi berezia jasoko da; eta 19:00etan Txindurri taldeak dantza egingo du Alberdiren oroimenez eta sari ezberdinak zozketatuko dira parte-hartzaile guztien artean. Ekintza honetan lagundu nahi izanez gero (ekonomikoki zein zozketatzeko produktuak eskaintzeko), hirutxikiak@gmail.com helbidera idatzi beharko da.



Jose Vicente Ramos aktore ermuarra hil da



Jose Vicente Ramos Martínez, lagun artean JV bezala ezagunagoa zen antzerki aktorea, Salamankan hil zen apirilaren 25ean. Ermuko Antzerki tailerrean hasi zuen bere aktore ibilbidea eta eszenatokiaz betiko maitemindu zen hantxe.

Aktorea izan nahi zuen eta ez zuen etsi lortu arte. Aukera bila Gasteizera lehenengo eta Madrilera joanda gero, antzerki klasiko generoan espezializatu zen, Konpainia Nazionalako antzezle-zerrendan ezinbesteko aktore bihurtu arte. Cristina Rotaren Arte Dramatikoko eskolan formatua, amaiera bakoa da parte hartu duen antzezlanen zerrenda, bai Ermuko Antzerki Tailerrarekin bai Madrilera hainbat eszenatokitan.

Labur-labur sariak banatuko dira maiatzaren 2an



Euskal Birusa Elkarte Kulturarak eta Gazte Asanbladak film laburren lehiaketa antolatu dute apirilean, "Aisialdirako aukera berriak" gaiaren inguruan, eta maiatzaren 2an (osteguna), sari banaketa egingo da Lobiano Kultur-gunean 18:30etatik aurrera. Kategoria ezberdinak egongo dira adinaren arabera, eta guztira 450 euro banatuko dira irabazleen artean.



ITZE
OPTIKA
AUDIO

Entzumenaren doako azterketak
Audifonoetan azkenengo teknologia



ZERMik
SISTEMA ELEKTRONIKOEN GARAPENA
DESARROLLO DE SISTEMAS ELECTRONICOS
ELECTRONIC SYSTEM DEVELOPMENT

ZERMik INGENIERIA S.L. mikrokontrolatzaile bidezko diseinu elektronikokoak garatzen espezializatua dagoen ingeniari-tza-entresa da. Horrez gain, LabVIEW-ren bitartez sistema industrialen kontrola eta monitorizazioa bideratzeko gaitasuna ere badu.



www.zermik.com
Usaetxe plaza 6-8, behea
Arrasate-Mondragón (Gipuzkoa)
Telf: 943 23 10 12

“Gazte Mugimenduek jorratutakoa zabaltzeko asmoz, egitarau feminista eta euskalduna prestatu dugu”

Ermuko Gazte Mugimenduak · VII. Gazte Eguneko antolatzaileak



Aurtengo Gazte Eguna egingo den zazpigarrena izango da eta maiatzaren 15ean ospatuko da. Ermuko Gazte Mugimenduek antolatu dute eta haien parte dira Gazte Asanblada, Ernai eta Nushu kolektiboak.

Testua **LIBE SOLOZABAL**

Zer ibilbide du Gazte Egunak?

Lehenengo Gazte Eguna 2013an egin zen eta Santixaue-tako bigarren egunean izan zen. Jai giroan ospatzeko, Santa Anako parkean herri-bazkaria eta kontzertuak antolatu ziren. Garai hartan Gazte Asanblada ardura-tzen zen egun hori prestatzeaz eta jende pilo batzea lortzen zuen. Hala ere, lekua herri erdigunetik urrun zegoenez eta, gainera, txosnak jartzeko baimenik ez zegoenez, plazara ekartzea izan zen asmoa. Hurrengo urtean, bigarren gazte eguna Santixaue-tako egitarautik kanpo egin zen plazan. Hirugarren edizioa, 2015ean, Nushurekin batera antolatu zen. Lehen alditik urte-ro ospatu zen Gazte Eguna 2018 arte. 2019an, ostera, jai egun soil batetik haratago joan nahi izan zen eta horretarako, Borroka Eguna antolatu zuten Gazte

Asanbladaz eta Nushuz gain, Ernaik eta Arkanbelek. **Pandemiarekin egitasmoak aurrera jarraitu zuen?**

Pandemiaren urtean hainbat ekimen egin ziren arren, kalean egiten genituen ohiko jarduerak eten egin ziren. 2021erako, berriz, Eztanda Eguna egitea erabaki genuen eta "Gazteok ez dugu ordainduko" leloa hartu genuen ardatz. Dinamika hori pandemiak azaleratu zituen krisi anizkoitzen aurrean gazteok planto egiteko deia izan zen. Helarazi nahi genuen mezua zera zen:

"Ermuko gazte borrokak omentzea eta herrian egiten diren lanketak erakustea da helburua"



guk ez genituela kapitalismoak eragindako kalteak ordainduko. Arazo eta gabezia ugari azaleratu ziren unea izan zen-eta. Goizetik iluntzerainoko egitaraua osatu genuen eta maskara erabiliz eta osasun-neurriak betez programazio osoa bete zen: tailerrak, bazkaria eta kontzertuak egin ziren plazan.

Ostean dena normaltasunera bueltatu da?

Bai, eta gainera, Ermuko Gazte Mugimenduak aurre-raupauso handiak lortu ditu, urte askotako belaunaldi ezberdinen borroka garrantzitsu batek argia ikusi baitu. 2022an lehenengoz Txosnagunea jarri genuen, aurretik hainbat saiakera egin ziren, eta duela bi urte lortu zen Udalaren baimena. Aurretik hainbat egitasmo izan arren, Santa Anan egin zena izan zen lehen Txosnagune ofiziala. 25ean gazteontzat egun propioa egin genuen: goizean triki-poteoa, bazkaria Txosnagunean eta gero beti bezala kontzertuak. Eta iaz ere gauza bera egin zen.

Eta aurtengo Gazte Egunerako zer asmo?

Aurten Gazte Eguna berreskuratzeko beharra sumatu dugu, urtean zeharreko lanketa kolektibo ezberdinak elkarbanatzeko. Gazte Mugimenduek jorratutakoa zabaltzeko asmoz egitarau feminista eta euskalduna prestatu dugu «Eztandak borrokan harrapa gaitzala» lemapean. Ermuko gazte borroka omentzea eta herrian egiten diren lanketak erakustea da helburua. Aurretik horren parte zirenak gonbidatuta daude eta etorkizuneko gazte mugimendu berriei aktibo jarraitzeko mezua transmititu nahi diegu. Azken finean, ospakizun egun bat izango da.

Zein izango da egitaraua?

Goizean hiru talde antolatzaileek urtean zehar egindako



lanketak aurkeztuko dituzte. Nushu talde feministak pornoari eta desioari buruzko tailer bat antolatu du. Gazte Asanbladak lan eskubideen gidaren inguruko hitzaldia emango du. Eta Ernaik herriko kirol espazio pribatuak salatzeako dinamika eramango du aurrera, 19 urtetik aurrerako gazteentzako kuota berezirik ez dagoelako eta ordaindu gabeko espazio falta baitago. Eguerdian herri-bazkaria egongo da plazan. Belaunaldi zahar eta berriak elkartzeko asmoz, Gazte Mugimenduen parte izan direnei etortzeko gonbitea luzatu nahi diegu. Arratsaldean olinpiadak egingo dira eta azkenik, kontzertuak. Nafarroatik Haizkan taldea etorriko da eta, egun berezi honetarako, Aiama eta Makis taldeak elkartuko dira lehen aldiz kontzertu bat emateko. Eguna bukatzeko, Dj You Can Be izango dugu estreinakoz.

Bazkarirako tiketak non eros daitezke?

Maiatzaren 4an, zapatuan, jarriko dira salgai bazkari-ko tiketak Infreñu tabernan. Egun horretan bertan egitarauaren aurkezpena egingo dugu. Horretarako, goizean gazteok martxa egingo dugu Mallamendira.

ITURGINTZA - GASA - BEROKUNTZA
PALACIOS SM
 EMPRESA INSTALATZAILE BAIMENDUA
 GREMIOEN KUDEAKETA
 ENERGIA BERRIZTAGARRIAK
 San Pelayo 26, behea · Ermua (Bizkaia)
 info@palaciosfontaneria.com / www.palaciosfontaneria.com
 660 72 95 03 · 659 75 74 59 · 943 53 92 23

Ferretería
ANBOTO
Burdindegi
 Orain
KOTXKO GILTZEN
 KOPIAK ere
 eginen ditugu
 943 17 69 76
 607 33 11 77
 ZUBIAURRE, 25
 ERMUA (BIZKAIA)
 www.ferreteriaanboto.es

German Uriguen, bertsolari iaioa

Gazte denbora osoa Ermuan egin zuen arren, bizitzak Elgoibarrera eraman zuen. Hamazazpi urteko mutikoa zela sortu zuen *Salbe* abestiak, herritarren akorduan jarraitzen du oraindik, laster 110 urte betetzear. Ermuan, Santa Agedako kantaldian, urtean zehar hildako herritarren etxepean abestu izan da; Elgoibarren gaur egunean oraindik hiletan azken agurra abesti horren bi estrofa ezagunenekin egiten da. Biloba eta bere legatua mantentzen diharduen Jon Peli Uriguen elgoibartarrarekin egon gara aitxitxaren berri jasotzeko.


Testua **ESTIBALITZ GONZÁLEZ**

Argazkiak **JON PELI URIGUEN** eta **ESTIBALITZ GONZÁLEZ**

Ermuko Guencallen jaio zen German Uriguen Ormaetxea 1898ko urriaren 11n. Eibartar armagina zen aita Damaso, herriko alaba ama Saturnina eta aitxitxarengandik zetorkien "Etxegiña" gaitzizenetik ezagutuko zuten familia osoa. Gerora Sallabente auzoan biziko zirenen, autopistaren sarrera egiteko Etxegiñanian. Eurenengan argi-zentrala ezagutu zuten sallabentearrek, makina batekin errekatik indarra hartuta auzorako argia sortzen zuena. Baita ortu ederra ere, sagarrondo ugari, oilotokia...

Kantari

Kanturako eta bertsoarako zaletasuna gazte-gaztetatik zekarren Germanek. *Diario Vasco* egunkarian 1977an egin zioten elkarrizketa baten aipatzen duen bezala, Ermuan eta Eibarren 1915ean hasia zen Santa Agedako koroak sortzen eta hamazazpi urteko mutikotxoa zela abestu zituen estreinako aldiz berak sortutako





German Uriguen, Etxegiña taldean koplari eta kalez kale kantari.

Salbearen zortzi ahal dia k. Arrakasta itzela izan zuen abestiak eta beste herri batzuetara ere zabaldu zen, tokian tokiko aldaera txikiak tarteko. Bere

esanetan, 19 urterekin egin zuen bere lehen agerraldia bertsolari bezala: Ermuko Sallabenteko jaietan izan zen eta berarekin aritu ziren Esteban Uriarte dimoztarra eta Kepa Enbeita muxikarra, betirako lagun handia izango zuena.

1923an, Elgoibarren hasi zen lanean: Gabilondon lehenengo eta urte batzuetara Sigma lantegian, bertako makinak konpontzearen arduradun erretiroa hartu zuen arte. Valeriana Sodupe elgoibartarra ezagutu eta, 1925ean ezkondu ostean, lau seme-alaben guraso izan ziren.

Etxegiña koroa

Laster bertakotu zen ermuarra. 1925 horretan Santa eskerako korua sortu eta Santa Ageda bezperan aurreneko kalez-kalekoa egin zuten, kantari eta diru eskean. Etxegiña izena jarri zioten herrian koru horri eta 1980 urtera arte German bera izan zen koplaria, koplak abestu edo inprobisatzen duen solista, gainontzeko guztiek hitzez-hitz errepikatzen dutenak.

Batutako diruarekin hasiera-hasierako urteetan kantari guztiek merienda ederra egin zuten bezala, laster baten "premia zuen familia edo herritarren bantentzat bideratzeari ekin zioten eta gaur egun Caritasi ematen zaio, bertatik banatu dezaten", zehaztu du Jon Peli Uriguen bilobak.

Nagusitan ezagutu zuen aitzitza, baina ondo gogoan du. "Izaera umilekoa, familia giroko pertsona eta era berean plazagizona zen. Kantu zalea, edozein gauza lortzeko edonora joatekoa eta saltseroa, larregi narbarentzea gustatzen ez zitzaion arren, jai giroaren bueltan zegoena beti: musika, antzerkia, bertso mundua..." bilobak dioskunez. Etxegiña korua sortzeaz gain, Tanborrada ere suspertu zuen, errondalla baten tanborra jotzen zuen, antzerkiak egitera ausartu zen...

Bertsolari

Bapateko bertsolaritzan ere aritu zen Uriguen. 1931tik 1933ra *El Día* edo *Euzkadi* bezalako egunkari jeltzaletan badira bere bertso edo olerki emanaldien gaineko aipamenak.

Plazetan abesteaz gain, txapelketetan ere hartu zuen parte: esaterako, 1960an Bizkaiko Eskualdeetako Bertsolari Txapelketan, Durangaldeko bigarrena geratu zen, laugarrena 1962an eta bosgarren 1964an. Bizkaiko Bertsolari Txapelketan, ostera, hirugarren izan zen 1960an.

Bapatekoa edo bertso-paperera, zertara jotzen zuen galdetuta bilobari, azken urteetan idatzizkoak sortu zituen arren "gazteagotan bapateko eta inprobisatzeko bertsolaria zen".

1981tik aurrera bere omenezko Etxegiña Bertso-paper Lehiaketa antolatu zuen Elgoibarko Izarra bertso eskolak, gerora gaur eguneko Idazlan Lehiaketan bihurtu dena. Omenaldi ugari jaso zituen German Uriguenek: besteak beste, 1974an Donostian Bertso Egunean bertsolari zaharrei eginikoa, Arraten antolatutako beste hura, 1981eko Elgoibarkoa... eta azken aitortza 2000 urtean egin zen, Elgoibarko Udalak Santa Eskeko Etxegiña taldearen omenez eliza ondoan jarritako harrizko eskultura tarteko.

"Euskara, elkartegintza eta euskal ohituren sustapena izan dira bere ekarpen nagusia"

OSASUNA * ESTETIKA
EDERTASUNA

Marfil

Goienkale 12 *Le-urpiandegi bat baino gehiago!!*
943 17 28 09

Egokitutako burua garbitzeko konketa

MEDITERRÁNEA
VINTAGE STORE

Arropa eta osagarriak

Orbe Karolinako plaza 6
Ermua, Bizkaia

678 359 337

mediterranea_vintage

Bitsi-denda Tailor prezipioa Etoji-denda

Senén
1978

Diseinuak eta kalitateak bereizten gaituzte

San Pelayo zeharbidea 4 ERMUA (48260) BIZKAIA
www.joyeriasenen.com - joyeriasenen@gmail.com

hanigan's
Irish tavern

Gosari, bazkari eta afariak eramateko prestatzen dugu

Astegunetan 7:00etatik zabalik
Asteburuetan 10:00etatik.

Komentukua z/g. 941010527



San Bartolome parrokiaren ostean Etxegiña taldearen omenezko eskultura.

euskal ohituren sustapena aipatzen ditu Jon Pelik. “Ohituren mantentze bat egin zuen, beste askorekin batera, aprobetxatuz jendea erakartzeko zuen indarra eta dohaina. Bere esparruaren txikitasunean, ohitura bat ehun urtez mantentzea ez da gutxi. Bera burubelbarri sartzen zenez, ingurukoek ere bere horretatik jarraitzen zioten eta ideia baten atzetik lanean jartzen zituen. Herri mailan erreferentzialtasunak sortzea eta mantentzen jakitea, horixe da nire ustez bere ekarpen nagusia” azpimarratu du Jon Pelik. Hainbeste plaza egindako gizona izanda ere, jendaurrean kikiltzen ez zen arren, ez zen bere buruaren erakustaldiak egite zalea. Beti lanerako prest, eta aurrean bera tiraka.

Herrian hain estima handitan duten Etxegiña taldea, datorren urtean ehungarren aldiz irtengo da koplazten

Kuriositate bezala Parisen bada ere rock talde bat Etxegiña izenekoa, Germanen lehen-gusu baten ondorengo batek sortu eta halan deituta-koa bere aitxitxaren omenez.

Ehungarrenari begira


Herriari egin dion ekarpenagatik galdetuta, euskara, elkartegintza eta

Elgoibarko kaleetan zehar. “Ehun urtetan milaka lagun pasatu dira Santa eskeko talde honetatik, familia guztietan dago etxegintarren bat eta errespetuz begiriatzen zaio herrian” azaldu du Jon Pelik, gaur egun harrotasun handiz taldearen bultzatzaile lanetan.

Germanek Santa eskeko jirak uztera zihoala esan ostean, bere lekua betez koplak norik kantatu bazegoela jakin zuenean, malko artean hartu zuen. Bere pozera-ko, gaur egunean osasuntsu jarraitzen du berak sortu eta hauspotutako Etxegiña kantari talde maitatuak.

German Uriguen, Etxegiña bertsolari eta koplaria, Elgoibarren zendu zen 87 urterekin, 1986ko apirilko 14an. Bere hileta elizkizunean Karlos Agirrek abestutako bertsoaren azken zatiak dionez:

Herri ohitura zaharren zinezko maitale, Santa Ageda bezperan han zen eskale, egun hortan ibiliz baserri eta kale, asko egin zituen bere jarraitzaile: talde suspertzaile eta zuzentzaile, umore eragile, kopla kantatzaile, herriko behartsuak laguntzen zale.



German Uriguen, Santa eskean bere seme eta bilobekin Jon Peli gazteena da.

“Azken urteetan idatzizkoak sortzera jo zuen arren, gazteagotan bapateko eta inprobisatzeko bertsolaria zen”


OSTEOPATIA
Pablo Lucena
617 680 156
info@osteopatialucena.com
Probaleku 5 - Ermua (Bizkaia)

HARATEGIA - URDAITEGIA
MIGUEL
BERTAKO OKELAK
ETXEAN EGINDAKO TXORIZO TXISTORRA ODOLOSTE ETA KROKETAK
PROBLEKU 3 - 943 170563
ERMUA

Psikologia
Ongizate pertsonalerako zentroa
GUZTIOK
Nahia Rojo Bustindui
Psikologoa eta Sexologoa
Zubiaurre 40 · Ermua
Hitzorduak: 688 85 18 95

Argien gela

Eguzki errainuek ematen duten argiak esperimentatzeko aukera ematen digu. Kolore ezberdinak dituzten materialak erabiltzen dira eta eguzki izpiak bertatik zeharkatzen dutenean sortzen diren fenomeno eta efektuak behatzen dira. Gelan magia giroa sortzen da eta haur guztiak txundituta geratzen dira; aho zabalik; argi ezberdinek sorrarazten dien sentimendu eta emozioak biziz. Egun euritsu edo lainotuetan ere, nahiz eta eguzkirik ez egon, gela sentsoriala bilakatzen da. Gelan iluntasuna da nagusi, eta argiekin jolasteko eta hauekin esperimentatzeko aukera ematen duten giroa sortzen da.



Patioaz gozatu

Udaberria datorrela-eta, Ermuko Haurreskolako haurrak patioaz gozaten ari dira. Txanoa buruan jantzi eta krema emanda, poz-pozik katutxoak bezala, eskailera gora jolastera joaten dira. Bertan, txirristan gora behera, piloten atzetik, motorrekin jolasten... ibiltzen dira. Toki honek, kanpo espazioaz gozatzeko aukera ematen die. Ea eguraldiak laguntzen duen eta uretako ekintzez ere gozatu ahal duten!

Txikiak esperimentazioa lantzen

O eta urtebeteko haurrek mugimendu askean bizi dute Haurreskola. Gela beraien beharretara egokituta dago, materiala beraien behar eta nahietara aukeratzen dugu eta sarritan aldatzen dugu, egun bakoitza erronka berria izateko. Argazki honetan pasta egosia (espagetiak) aukeratu dugu esperimentazio-material gisa. Erreakzio desberdinak izan ditugu: espagetiak jan dituenak, hauek ukitzean negar egin duenak eta baita ere patinatzeko erabili izan dituenak ere.



Liburutegi berrira txangoa

Bat eta bi urteko haurrak liburutegi berrira egin dute txangoa. Liburutegi berria ezagutu ez ezik ipuin eta abesti saioa burutu dute bertan. Primeran aritu dira!



Haurreskola ere Korrikarekin

Martxoaren 20an Korrika Ermutik pasatu zen. Ermuko Haurreskolako umeak gelan petoa margoztu eta gero, kale-ira irten ziren Korrika ikustera. Egun zoragarria egin zuenez, txikitxoek ere egun berezi honetaz gozatu ahal izan zuten. Furgoneta pasatu zenean, txaloka eta poztasunez animatu zituzten atzetik zetozen korrikalari guztiak.



Hodei Rivas, gimnasia maskulinoan bidea eginez



Apirilaren 9tik 14ra Gimnasiako Espainiako Txapelketa Batea burutu zen Castellón, eta Hodei Rivas ermuarrak urrezko domina eskuratu zuen infantilen kategorian. Duela bi urte eta erdi batu zen Zaldibarko Olazarmendi Klubera, eta entrenatzaileek berehala antzeman zioten gimnasiarako gaitasun berezia zuela. Orduetik hainbat sari eskuratu ditu: Bizkaiako txapelduna, Euskadiko txapelduna eta azkena, Espainiako Txapelduna.

Testua **DORLETA VIDAL**

Entrenatzen hasi zenean, Hodeik ez zuen lehiatu nahi, jendaurrean aritzeak urduri jartzen zuelako. Hilabete gutxiren bueltan, ordea, lotsa galdu, eta tapizera salto egiten animatu zen, emaitza bikainak lortuz. Lehen denboraldi hartan, hasiberria izan arren, Bizkaiko txapeldunordea izan zen esku hutseko ariketan eta pilotarekin.

Orduetik, gimnasiak dituen aparatu ezberdinetan trebatu da (pilota, uztaia, soka, mazoak eta zinta), Federazioak urte bakoitzerako agintzen duenari jarraituz, eta datorren urtean zintarekin jarduteko prestatzen ari da. "Orain arte probatu ditudan aparatuen artean mazoak dira nire gustukoena. Oso ondo moldatzen naiz, eta ematen du eskuetan imana daukadala... nik neuk ere ezin dut ulertu!", dio Hodeik. Aldi berean aitortzen du bere indarguneak indarra eta oreka direla, eta oso ondo biratzen dela. Bestalde, saltoak perfektionatu beharko lituzke eta hainbeste miresten duen Eneko Lambea gimnastak bezala egin nahiko lituzke *butterfly*ak.

Enter
INFORMÁTICA

SALMENTAK
IRAKASKUNTZA
ZERBITZU TEKNIKOA

VI. Mendeurrena 19, behea
943 17 90 37
enter@informaticaenter.com

KARABIXA

KARABIXA KAFETEGIA

Egunero zabalik
08:30etik aurrera

Proba-Leku
Ileapaindegia - Estetika

Probaleku 3, 1A
Tel.
943170542

Hobetzeko bide horretan, lau egun entrenatzen du astean (9 ordu), eta horrez gain, etxean praktikatzen du eta YouTubeko bideoak ikusten ditu. "Egun guztia dabil saltoka —diote Vanesa García eta Raul Rivas gurasoek—. Entrenamendutik bueltatu eta saltoka jarraitzen du etxean, egunero. Egongela da lekurik zabalena eta bere gustukoena, eta lanpara pare bat aldatu behar izan ditugu, istripu txikiak izan ditugulako, kar-kar!".

Gimnasiari denbora asko eskaintzen dion arren, uime arduratsua da eta egunean daramatza ikasketak ere. Izan ere, gurasoen ustetan, gimnasia ematen dion diziplinari esker, askoz hobeto antolatzen ditu gauzak gainontzeko esparruetan ere: denborak neurtzen daki, koadernoak garbi eta ordenatuak ditu... "Aurten iaz baino ordu gehiago eskaintzen dizkio gimnasiari, eta aldi berean emaitza hobeak lortzen ari da eskolan ere", diote Rivasek eta Garciak.

Mutilen gimnasia sustatu

Hodei Rivasekin batera, bide berriak urratzen ari dira gimnasia erritmikoan Espainian. Hala, nesken esparru izatetik, neska eta mutilen kirola izateko pausua ematen ari baita, eta Castellóko txapelketan, mutilentzako kategoria egon da lehen aldiz (orain arte neskek bakarrik parte hartu zezaketen): "Mutilen gimnasia erritmikoak borrokan dihardu, nazioarteko txapelketetan parte hartu ahal izateko, eta hemen mutilen gimnasia erritmikoa sustatzen ari da. Beste herrialde batzuetan, aldiz, ez dute horrela jokutzen, beraz, Espainiatik kanpo lehiatzea ezinezkoa da. Ez dago Europako Txapelketarik, ez Olinpiadetan parte hartzeko aukerarik", damutzen dira gurasoak.

Nolanahi ere, bide onetik doa ermuarra. Denboraldi honetan Bizkaiko, Euskadiko eta Espainiako txapelketak irabazi ditu bere kategorian, eta beste torneo txikiagoetan ere lehen postuan geratu da. Eta zein da sekretua?: "Ez naiz irteten irabaztera, baizik eta ondo pasatzera. Berdin zait zein postutan geratzen naizen, ez dut presio berezirik sentitzen". Etorkizunera begira, gaztetxo honek gimnasiaz gozatzen jarraitu nahi du eta, aukera izanez gero, nazioarteko txapelketetan parte hartzea gustatuko litzaiokio, "kirol honek ez daukalako generorik eta barrerak apurtu behar direlako", esan du.



"Ez naiz irteten irabaztera, baizik eta ondo pasatzera. Berdin zait zein postutan geratzen naizen, ez dut presio berezirik sentitzen", esan du Hodei Rivasek.



Hodei Rivas Espainiako txapelketan ateratako argazki ezberdinetan. Goiko irudian, Laura Carrillo eta Itsaso Zubia entrenatzaileekin. ARGAZKIAK: OLAZARMENDI KLUBA.

Don Teodoron estatua



Eliza ostian kokatuta, 2000. urtian egin zeban Angel Gil eskultore ermuarrak. Teodoro Zuazua Goitia parrokoa irudikatzen dau eta lora-txortaz apainduta egoten da eguna juan eguna etorri. Gozoki batzuk eskaintzen dotsaz neskato bati eta sarritxan benetakuak izaten ditxu brontzekuen onduan, umientzat opari, abadiak bizi zanian ohitxura egin zeban modura.

Bere atzian dakan lorategi karratuan, Maitasunaren Zuhaitz bat, Cercis Siliquastrum eder bat dago harrizko monolito bat egon zan lekuan: 1936ko gerra amaitxu ostian eraikia, gerra zibilean alde nazionalen eta soldautza eitxen zeuazela hildako 9 herritarren izen-abizenak inskribatuta zitxuan. Gerora burdinazko hesia jarri jakon bueltan-bueltan, gora begirako eztaka zorrotzekin, barrura sartzeko asmo guztiak oztopatzeke.





AINARA RIVERAS

Udaberri koloretan

"Sarritan nola aurreratzen garen, horretara nola behartzen gaituzten, nola uzten garen eta erritmo horrek nola harrapatzen, estutzen eta gaixotzen gaituen "

Dagoeneko maiatza. Konturatu gabe, egunerokoan buru-belarri, urtea dagoeneko bere bosgarren hilabetera iritsi da. Askok seguruena udako plana ia eginda eta, etxeko gazteak eta txikiak ikasturtearen azken txanpan murgilduta, udako oporretan pentsatzen. Egunak joan eta egunak etorri, gehienetan abiadura biziagian gabilta, askotan esku artean darabilgunari arreta nahikoa jarri gabe eta inguruak eskaintzen digun ederraz konturatu gabe.

Sarritan nola aurreratzen garen, horretara nola behartzen gaituzten, nola uzten garen eta erritmo horrek nola harrapatzen, estutzen eta gaixotzen gaituen. Zenbat eta azkarren eta esfortzurik gabe bada, hobe omen. Produzitu eta kontsumitu ere, gehienetan, automatikoan eta askok gogobete egoteko baloreak eta euskarriak non ahaztu zaizkigun edo non utzi ditugun jakin gabe.

Horrelakoetan murgiltzen hasita nagoela sentitzen dudanean, martxa gutxitzeak, arnasa sakon hartzeak eta ibiltzeak laguntzen naute ni. Naturari bere osotasunean erreparatu eta antzina bera ginela ospatzen genuenetara salto egiteak patxadara eta bizitzaren xedera berriro batzen laguntzen naute.

Orain urte batzuk Josu Naberanen *Antzinako Euskaldunen Ilargi-Egutegia* liburua irakurri nuen. Gure urteko 12 hilabete lineal eta kalkulatuetatik oso urruti, antzinako euskaldunak eta inguruko herriak naturak zikloka eskaintzen dizkigun sasoietara batzen ziren. Gutxiarekin eta orduko zailtasunei aurre egiteko ahalmenak garatuz, udaberriko ilargi berriarekin hasi eta, ilargialdiekin batera, sasoi bakoitzak eskaintzen zietenarekin egiten zioten aurre egunerokoari. Erljioak bere santuen izenekin bereganatu zituen ospakizunak dira eta asko horri esker iritsi zaizkigu.

Udaberriaren bihotzean, naturaren pizteak ezinbestean denoi esnatzen dizkigu beste behin barrenak. Erljioak eta herri ezberdinetako jaiek ere maiatzean, besteak beste, Asentzio eta San Isidro egunak ospatu eta mirari eder honi ohore egingo diote, antzina gure aurrekoek goratu eta ospatu bezala.

Ginena eta garena ez daudelako elkarrengandik hain urruti. Udaberri koloretan jarrai dezagun loratzen, behin eta berriz, bizitzaren zikloekin etengabe. Geldialdia egin eta momentua gozatu. Horixe oraingoan nire gonbidapena.

MASAMI MURAKAMI

Tokion (Japonia) jaioa duela 59 urte. Hiru anaia-arreben artean, gazteena. Bi seme eta alaba bat ditu. Athletic Clubeko zale amorratua eta euskal kulturaren maitale sutsua, ohikoa da tarteka Ermuko kaleetan barrena ikustea.

Testua **DORLETA VIDAL**

Nola gogoratzen duzu haurtzarora?

Ume egonezina nintzen.

Umetan zer izan nahi zenuen?

Jostailu-denda bateko jabea.

Zer ikasi zenuen?

Ekonomia. Japoniako kudeaketa metodoak ikasi nituen.

Non egiten duzu lan? Zenbat urterekin hasi zinen?

Karpa fabrika batean hasi nintzen lanean unibertsitatea amaitu eta berehala, 22 urte nituenean.

Zer da lan horretaz gehien estimatzen duzuna?

Saltzailea naizen arren, fabriketan eta eraikuntza guneetan jende asko ezagutu dut, eta asko ikasi dut haiengandik.

Eta gutxien?

Ez dago ezer ikasi ez dudarik...

Erretirata zaude?

Kar, kar! Nahiko nuke, baina lan apur bat egin behar dut nire langileentzat.

Lanari esker ezagutu zenuen Bilbo, baina zer dela-eta etorri zinen Ermura lehen aldiz?

2012an ni bakarrik joan nintzen Japoniatik Bilbora UEFAko finala ikustera, eta ermuarrez osatutako taldea hurbildu zitzaidan bertan. Telefono zenbakiak trukatu genituen, eta hitz eman genuen hurrengo urtean, partida ikustera joaten ginenean, berriro elkartuko ginela.

Zer iruditu zitzaizun Ermua? Zer topatu zenuen hemen?

Japoniak ahaztuta dituen kultura, ohiturak eta bizi-modua Ermuan geratu dira.

Ordutik zenbat bider etorri zara?

30 bat bider, esango nuke.



Zer gustatzen zaizu Ermutik?

Tamaina polita duen herria da, eta jendearen artean lotura sendoak daudela iruditzen zait.

Gaur egun kuadrilla daukazu hemen...

Bai, 30 lagun inguru gara, eta Ermura etortzen naizenean, nire lagunekin denbora pasatzea gustatzen zait.

Zer eskaintzen dizute lagun hauek?

Euskal Herriko gauza guztiak azaltzen dizkirate.

Haiek ere bisitan joan zaizkizu?



- Akordeoia	- Gitarra	- Pianoa
- Biolina	- Gitarra elektrikoa	- Saxofoia
- Biolontxelo	- Gitarra baxua	- Trikitrixa
- Bonbardino	- Lengoia musikala	- Tronboia
- Flauta	- Klarineta	- Tronpeta
- Kantua	- Panderoa	- Txistua
	- Perkusioa	

MUSIKA
ESKOLA

Tel. 943 17 12 98 / 943 17 18 00
albokamusikaeskola@hotmail.com



KRABI

Ileapaindegia
Estetika

Tel: 943 03 17 56
Diputazio, 5


Duela urte batzuk Japoniara etorri ziren, eta oso ondo pasatu zuten beste japoniar batzuekin.

Athleticzale amorratua zara... Zergatik gustatzen zaizu hainbeste?

Zergatik? Familia gara-eta! Klubak, jokalariek, langileek, zaleek... denok maite dute herriko kluba, belaunaldiz belaunaldi! Eskerrik asko zure harrera beroagatik!

Athleticeko kirol-lagunarte bat sortu duzu Tokion. Zenbat bazkide ditu?

Gaur egun 15 japoniar gara, baina hasieran ez nuen sartzerik lortu! Kar-kar!

Zein da zure jokalaririk gustukoena?

Ezin da bat bakarrik aukeratu... Uuum, Markel Susaeta?

Athleticeko partidu asko ikusi dituzu?

Bai, Kopako finalarekin, 46 aldiz.

Asko sufritu zenuen Sevillan?

Sufritu? Ez. Historiak indarra emango zigula uste nuen.

Gabarra ikusi zenuen? Zer nolako emozioa sortu zizun?

Gabarra ikustea zen nire ametsa, eta esperientzia harri-garria izan zen egunkarietan eta Interneten ikusita nituen argazkiak nire begien aurrean zabaltzen ikustea.

Kirolik praktikatzen duzu?

Bai, 60 urtetik gorakoentzako futbol talde batean nago, eta astero surf egitera joaten naiz.

Ederto moldatzen zara euskaraz. Noiztik ikasten duzu? Zergatik?



Duela 6 edo 7 urte hasi nintzen ikasten. Mundu osoan egiten dut lan, eta garrantzitsua iruditzen zait tokian tokiko hizkuntzan komunikatzea. Agurra besterik ez bada ere.

Erraza da Tokion euskara ikastea?

Baietz uste dut, gaur egun etxetik ikasi daitekeelako ordenagailuarekin. Kuadrillak hainbat urte daramatza euskaraz soilik hitz egiten, eta eskertzekoa diet!

Aurten Korrikan parte hartu duzu. Lehen aldia izan da?

Ez, 20. ediziotik egiten dut, pandemian ere bai.

Zein musika mota gustatzen zaizu?

Euskarazko musika, abesti berriak zein zaharrak.

Zein da zure janaririk gustukoena?

Gildak! Eta etxeko zein sasoiko janariak maite ditut.

Zure bertute eta akats bana?

Simplea eta zintzoa naiz: "Born good by nature". Akatsik ez, hori ere ikasketa bat da.

Erraz haserretzen zara?

Ez.

Puntuala zara?

Baietz esango nuke.

Zure bizitzako egunik zorionsuena?

Kopa irabazi genuenean. Negarrez nengoen, eta inguruko guztiak ere negarrez: denok negarrez. Momentu zoragarria izan zen.

Zein da hartu duzun erabakirik zailena?

Egonaldia bi astez luzatzea eta, sarrerarik ez nuen arren, Sevillara joatea.

Berriro jaioko bazina, zerbait aldatuko zenuke?

Euskaldun jaio nahiko nuke, posible balitz.



1951

E R M U A

Argazkia plazako frontoiaren zabalean aterata dago 1951eko maiatzaren 20an, Bernardo Garate "Cantabria" pilotari handiari eginiko omenaldi egunean. Erdiko ilaran, aurpegi ezagunak: Eloi Agirregomezkorta, Guillermo Bengoetxea, Bernardo Garate bera, Félix Izagirre, Felipe Arregi... Ermuarrokin batera ordurako kantxetatik erretiratutako hainbat pilotari, frontoietako intendente eta baita Domingo Zenarruzabeitia, Txomin pulsolari famatua ere, tente daudden arteko laugarrena, "Cantabria"ren atzean. Beronen eta Toribio anaiaren omenez jarri zitzaion Cantabria zeharbidea Zubiaurre kaletik Goienkalera bitarteko pasabideari.



1961

M A L L A B I A



Argazki hau 1961 ingurukoa da. Goitako eskola aurrean aterata dago. Bertan auzoko umeak ageri dira eta nagusiak Ermukoak direla dirudi. Bertan agertzen dira Elgetzuko Felix eta Juan Luis Mugarza Garitaonaindia eta Valentin eta Jose Luis Mugarza Martinez, Goitako Jose Ramon Gallastegi Malaxetxebarria eta Juan Luis Gallastegi Gerrika-beitia.

IRAGARKI LABURRAK

Neska eskaintzen da etxeak edo peorak garbitzeko, eta pertsona nagusiak zein umeak zaintzeko. Esperientziarekin. ☎ 686 52 0473, Maria.

Neska euskalduna eskaintzen da haurrak zaintzeko, goizez zein arratsaldez. Esperientziarekin eta magisteritza ikasketekin. ☎ 648 625 209.

Haurrak zaintzeko neska eskaintzen da, esperientziaduna eta Haur Hezkuntzan graduatua. ☎ 685 584 587


Matematikako, fisikako eta kimikako klase partikularrak eskaintzen dira DBHn dauden ikasleentzat ☎ 688 683 655.



Maiatzaren 19an.
Zorionak **Elene!** 6 urte beteko dituzu. Poztasun goxo asko banatzen jarrai dezazun, familia guztiaren partez ZORIONAK!!



Apirilaren 12an
Zorionak **Nahia!** 9 kandelazure pastelxoan, zu bai neska handia! Gozatu zure egunaz, gure martxosa! Patxo eta besarkada erraldoi bat, Oihanen partez bereziki! AMZ.



Apirilaren 12an
Zorionak **Xabier** zure lehen urtebetetzean. Jarraitu alaitasun horrekin betirako, polit hori, asko maite zaitugu. Amama Marce eta aitite Jose.



Maiatzaren 4an
Zorionak **Nora** zure 6. urtebetetzean amamaren eta aititeren partez. Asko maite zaitugu!



Apirilaren 25ean
Zorionak **Danel**, polita, zure hirugarren urtebetetzean, aitite Jose eta amama Marceren partez. Asko maite zaitugu, gure poztasuna zara!



Maiatzaren 22an
Zorionak **Lander** zure 7. urtebetetzean, mutil handi! Ondo pasatu amamaren eta aititeren partez. Maite zaitugu!



ZUZENBIDE KONTUAK

Lege eta
kontu aholkularitza

Izarra Centre eraikina

Tel: 846080080

Mugikorra: 688885435

zuzenbidekontuak@gmail.com

Goienkale kalea (Ermua)
Tel: 943 172 454
sehiga.proteccionlaboral@gmail.com

ARRIETA CORDEVI

Etxeresna elektrikoak,
telebistak,
musika-ekipoak...
...prezio eta kalitate
ezin hobean.

VI. Centenario kalea, 5 - ERMUA

Infreñu Taberna

Kardenal Orbe plaz
943 174584
www.infretaberna.com

ileapaindegia
Silvia
peluquería

Asteartetik ostiralera
00-12:00 15:00-19:00
arunbata 8:30-13:00

943 170474

688819336

ZINEA

4tik 6ra:

“El salto” +
“La primera profecía”

11tik 13ra:

“Civil War” +
“Pequeñas cartas indiscretas”

18tik 20ra:

“El especialista” +
“Nina”

25etik 27ra:

“Hasta el fin del mundo” +
“La casa”

Ermua Antzokian.
Hainbat ordutegi.

ZINE-KLUBA

Hilak 2:

“La quimera”

Hilak 9:

“El consentimiento”

Hilak 16:

“Sangre en los labios”

Hilak 23:

“Siempre nos quedará mañana”

Hilak 30:

“Mamífera”
Ermua Antzokian. 20:30ean.

UMEENTZAKO ZINEA

Hilak 5:

“Enma y el jaguar negro”

Hilak 12:

“Un rey supermono”

Hilak 19:

“Deep Sea 3D” (euskeraz)

Hilak 26:

“Garfield: La película 3D”

Ermua Antzokian.

17:00etan.

MUSIKA

Hilak 11:

Vértigo Rock:
Cockney Rejects,
Dinamita,
Celtibeerian,
John Dealer & The Coconuts,
Fracture,
Ossho,
Old Time Spooks,
Larru Beltzak,
BDSM,
Aiama,
Eskarmiento.
12:30etatik aurrera. Martxoaren 8a plazan, Orbe Kardinalaren plaza eta herriko kaleetan.

ANTZERKIA

Hilak 31:

“Aquí no paga nadie”,
Banarte antzerki tailerraren eskutik.
20:30ean.
Ermua Antzokian.
Sarrera: 8 €

ERAKUSKETA

Hilaren 1etik 30era:

Margo erakusketa:
Mugartea taldearen lanak.
Ermuko dendetako erakusleihoetan.

UMEENTZAKO EKITALDIAK

Hilak 5:

Margo tailerra. 11:00etatik 14:00etara. Orbe Kardinalaren plazan.

Hilak 28:

Jolasaren Nazioarteko Eguna: hainbat ekitaldi . 17:00etatik aurrera.
Orbe Kardinala, Kaltxango eta Martxoaren 8a plazetan.

BESTELAKOAK

Hilak 4:

Borroka barrena eguna: hainbat ekitaldi.
14:00etatik aurrera Orbe Kardinalaren plazan.

Hilaren 13tik 19ra:

Galiziako letreei buruzko jardunaldiak: hainbat ekitaldi.
Orbe Kardinalaren plazan eta Galiziako Zentroan.

Hilak 23:

Bertso jaialdia.
Ermuko ikasteetxetako ikasleak.
17:30ean.

Ermua Antzokian.

Sarrera doan.

Hilak 25:

Gazte eguna: hainbat ekitaldi.
12:00etatik aurrera Orbe Kardinalaren plazan.

Patxi López



**TXINDURRI
TALDEA
Tokian
tokiko**



URRETA burdindenda

- * Etxea
- * Tresneria
- * Brikolajea
- * Errealak
- * Giltzak
- * Sarrailagintza
- * Kit altzariak

Zeharbatea 8 Td. 943 17 65 61 ERMUA

Iberikoetan
espezialistak

Mayte

VI Centenario 5 · ERMUA
943 172 412

PRO
arraindegia



**ITSASKIAK
ARRAIN FRESKOAK
ETA IZOZTUAK**

Zubiaurre, 21
943 17 16 96
ERMUA

LANBIDE
HEZIKETA
2024-25




IKASTETXE
PUBLIKO
DOAKOIA

AURREMATRIKULA MAIATZAREN 6tik 24ra

GOI MAILAKO ZIKLOAK
 ERDI MAILAKO ZIKLOAK

HEZKUNTZA ESKAINTZA



F

EGOKITZAPEN FISIKOA
GIZARTE ETA KIROL IRAKASKUNTZA ETA ANIMAZIOA



M

NAZIOARTEKO MERKATARITZA
GARRAIO ETA LOGISTIKA

MERKATARITZA
JARDUERAK



A

ADMINISTRAZIOA ETA FINANTZAK
+ Administrazioa eta Finantzak
eskaintza partziala arratsaldez.

ADMINISTRAZIO
KUDEAKETA



I

SAREKO INFORMATIKA SISTEMEN
ADMINISTRAZIOA
WEB APLIKAZIOEN GARAPENA
PLATAFORMA ANITZEKO
APLIKAZIOEN GARAPENA

SISTEMA
MIKROINFORMATIKOAK
ETA SAREA

ESPEZIALIZAZIOAK

ZIBERSEGURTASUNA
INFORMAZIOAREN TEKNOLOGIEN
INGURUNEETAN



Otaola Hiribidea, 29 | 20600 Eibar, Gipuzkoa
943 89 92 11 | idazkaritza@uni.eus
@uni.eus



www.uni.eus



 **NEREA IÑIGUEZ
HORTZ KLINIKA**

- Aho eta inplante kirurgia
- Hortzetako protesiak
- Hortz estetika
- Ortodontzia
- Odontopediatria
- Endodontzia eta odontologia kontserbadorea



Hortz klinika berri eta handitu dugu

San Inazio 4 Tel.: 943 030 512
Ermua niklinika@gmail.com

 **irale**
Hortz Klinika
Clinica Dental

C/ Zeharkalea, 8
48260 Ermua, Bizkaia
Tel. 943 17 71 34

OSASUN GIDA

IRAZ

Odontologia
Fisioterapia

943 578 617
615 793 717
www.irazuklinika.com

 **SAN PELAYO**
HORTZ KLINIKA - CLINICA DENTAL

Zuri egokitzen
den odontologia

La odontología
que se adapta a tí

Dra. OLATZ GARCÍA ARREGUI col. nº 1264

- P.A.D.I
- IMQ
- SANITAS
- DENTYRED
- AZKARAN
- OCASO

☎ 943 17 04 04
✉ info@clinicasanpelayo.com
📍 San Pelayo Zeharkalea 5
48260 Ermua (Bizkaia)

 **AMALUR**
FISIOTERAPIA

688 61 98 96
zeharkale 12 bajo
48260 ERMUA

IRENE ESQUÉ col.1866 EGOITZ FORMOSO col.1875

 **OINAK**
LEIRE MAYORA
PODOLOGOIA

Erdikokale 1, 1. A
48260 Ermua
☎ 943 17 47 44

Osasun Gidan agertu nahi baduzu,
deitu 943 17 93 50 edo 688 63 28 76 telefonoetara,
edo idatzi drogeten@gmail.com helbidera.